

**Bilbo, 2014ko ekainaren 13a**

**Maude Luherne, epe luzerako zaintzari eta adinekoen tratu txarrei buruzko politika- eta proiektu-arduraduna**

Foru-diputatu andre estimatua,

Presidente andre estimatua,

Parte-hartzaile estimatuak,

Eskerrik asko nire erakundea, AGE Platform Europe, gaurko ekitaldi garrantzitsu honetara gonbidatzeagatik. Oso ekitaldi egokia da hau: urtero bezala, ekainaren 15a adinekoen tratu txarrez kontzientziatzeko munduko eguna da. Badirudi adinekoen eskubideei buruz hitz egitea adinekoen tratu txarren aurkako borrokaren oso alderdi garrantzitsua dela eta, beraz, nire erakundearen jardueren funtsezko alderdi bat ere bada.

### **Sarrera**

Aintzat hartu behar duzue gaztea izateaz gain ez naizela bakarrik hitz egiten ari, Europako adinekoen 160 erakunderen izenean baizik. Nire erakundea, AGE, hain zuzen ere Europako adinekoen sozietate zibilarren erakundeen plataforma bat da, eta, bertan, adinekoek beraiek hartzen dituzte gure plataformaren jarrerari buruzko erabakiak. AGEk Bruselan dauka egoitza, eta haren helburua adinekoen iritziak eta itxaropenak Europako erakundeetan adieraztea da. Horrez gain, erabakiak hartzeko zein prozesu garrantzitsutan eragina eduki dezaketen jakinaraztea du xede.

Nire erakundea, AGE, egitate simple batean oinarritzen da: adinekoek Europan ohiko erronka askori aurre egiten diete, eta erronkok giza eskubideak egikaritzeko moduari eragin diezaiokete. Europar Batasuneko leku guztietan, zenbaitetan adinekoak jarduera batzuetarako, zerbitzu-mota jakin batzuetarako sarbidea edukitzeko edo lan- edo prestakuntza-aukeretarako "zaharregiak" direla esaten da. EBko leku guztietan, adinean oinarritutako estereotipoak eta bereizkeria pairatzen dituzte. EBko leku guztietan, pobrezian eta gizarte-bazterketan erortzeko arrisku handiagoan daude biztanle orokorrak baino. Aitortu behar dugu suizidio-tasa askoz ere altuagoa dela zahartzaroan beste edozein adin-taldetan baino. Badakigu bakartze soziala funtsezko alderdi bat dela osasun-, ekonomia- eta gizarte-arazoei lotuta dauden zahartzaroaren berezitasunak ulertzeko. Era berean, badakigu Europako leku guztietan adinekoek krisiaren ondorioz ere sufritzen dutela. Badakigu adineko emakumeek eta gizonek ez daukatela pentsio-eskubideetarako berdintasuneko sarbiderik. EBko leku guztietan, belaunaldien arteko solidaritatea ez da era nahikoan sustatzen; belaunaldi bat bestearen aurka jartzeko arriskua dago, eta horrek eragina dauka adinekoen eskubideetan.

Funtsezko beste faktore bat hauxe da: "adinekoak" deitu ohi diogun taldea ez da inola ere talde homogeen bat. Zenbait belaunaldiz, oso testuinguru eta egoera desberdinez eta oso itxaropen desberdinez pentsatu behar dugu. Edonork bezala, badakigu adinekoek ere bizitza on bat eduki nahi dutela eta batzuek familiarekin eta lagunekin, lan- edo aisia-jardueretan denbora eman nahi dutela.

Hortaz, zer egin daiteke? Zein izan daitezke gure itxaropenak Europan, adinekoen eskubideak babesteko? Gauza asko egin daitezke adinekoek beren eskubidetara daukaten sarbidea hobetzeko. EBk gizonen eta emakumeen berdintasunaren arloan jardun dezake, adibidez pentsioetarako

sarbideari dagokionez. Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzeko baliabideak eta jardunak batera ditzake. Estereotipoak eta adinagatiko bereizkeriaren aurkako borrokan lan egin lezake. Sozietate zibilar entzun liezaioke eta erabakiak hartzeko prozesuetan adinekoen partaidetza hobetu lezake. Arlo ugartan, EB aldaketarako katalizatzaile bat ere izan daiteke, jardunak partekatuz eta herrialde bakoitzean aplikatzen diren irtenbideak aztertuz.

AGEn daukagun eginkizuna hauxe da: EB gehiago eta hobeto jardutera bultzatzea, adinekoek beren eskubideak eskuratu ditzaketela eta beste edozein adin-taldek bezalaxe bizi-kalitate on baterako sarbidea izan dezaketela bermatze aldera. AGEN dugun ikusmoldea funtsezko hiru puntutan laburbiltzen da.

Lehena adin guztientzako gizarte bat lortzea da, non ezein adin-talde alboratzen ez den eta bereizkeriarik jasaten ez duen. Horrek esan nahi du legeek bizitza osorako ikuspuntu bat barne hartu beharko luketela eta belaunaldien arteko solidaritateak funtsezkoa izan beharko lukeela.

Bigarrena adinekoak aintzat hartzen dituzten inguruneak garatzea da; hau da, adinekoen bizitzaren alderdi guztiak azertu behar dira eta parte hartzeko aukera erraztu egin behar da. Hori modu irigarrian eraikitako inguruneetan oinarritzen da, baina baita zerbitzuetarako sarbidean, bereizkerien aurkako borrokan, zahartze osasuntsua kontuan izaten duten ikuspegietan (adibidez, osasun-prebentzioa) eta abarretan ere.

Hirugarrena adinekoak gizartean eta erabakiak hartzeko prozesuetan sartzea da. Adinekoek, adinekoen sozietate zibileko erakundeak barne, kontsultatu beharko litzaieke eta parte hartzeko prozesuetan sartu beharko liriateke, legegileei erabaki egokiak hartzen laguntze aldera eta adin-taldeen kezak eta itxaropenak adierazteko aukera izate aldera. Adinekoekin lan egin behar dugu, eta ez bakarrik adinekoentzat.

Azkenik, gure ikusmoldean eskubideetan oinarritutako ikuspegia eta giza eskubideak funtsezkoak dira. Giza eskubideen erdiespena gure politiken azken helburua izan beharko litzateke.

Sarrera luze honen ostean, gaurko ekitaldiaren gaian jarri nahiko nuke arreta.

### **Adinekoen eskubideak eta epe luzerako zaintza eta laguntza behar duten adinekoen eskubideen gutuna**

Giza eskubideak denontzat adin-mugarik gabe aplikatzen diren arren, adinekoekiko jarrera negatiboek eta bereizkeria handiak adinekoen giza eskubideak praktikan gauzatzea galarazten dute. Izan ere, nahiz eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak eta denontzat aplikatzen diren giza eskubideen hitzarmenek adinekoak dagoeneko babestu, horiek ez daude berariaz aitortuta gobernuak legez pertsona guztien eskubideak gauzatzera behartzen dituzten giza eskubideei buruzko nazioarteko legeetan.

EBko hitzarmenen artean, Langile Etorकिन Hitzarmenak baino ez du adinagatiko bereizkeria aipatzen, baina irismen mugatua dauka, langile etorkinei eta haien familiei soilik aplikatzen baitzaie. Adinagatiko bereizkeria legerian berariaz aipatzen ez den heinean, zaila da adinean eta beste arrazoi batzuetan (hala nola generoa edo jatorri etnikoa) oinarritutako bereizkeria ugariri heltzea.

Ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko EBko hitzarmenak adinekoentzat garrantzitsuak diren zenbait xedapen hartzen ditu barne, hala nola irisgarritasuna, bizitza independentea eta adinerako egokia den osasunerako eta justiziarako sarbidea. Hala ere, adinekoek gaur egun aurre egiten dieten erronka guztiak ez daude ezgaitasunarekin lotuta eta, beraz, itun horrek ezin du eskaini babes nahikorik bizitzan zehar. Gainera, horren ezarketak ez ohi du adina aintzat hartzen. Izan ere, Europako estatu ugari ezgaitasunak dituzten pertsona gazte eta adinekoei laguntzeko sistema desberdinak dauzkate, eta, esate baterako, ezgaitasunagatiko laguntza baten ondorioz edo laguntza pertsonaleko sistema baten ondorioz erretiroko adinera heltzen diren pertsonak hortik kanpo uzten dituzte.

Europari dagokionez, EBko oinarritzko eskubideen gutunaren 25. artikulua honakoa dio: "Batasunak adinekoek bizitza duin eta independente bat eramateko eta bizitza sozial eta kulturean parte hartzeko dauzkaten eskubideak aitortu eta errespetatzen ditu". Dena den, horrek ez dio EBri eskumen berririk ematen adinekoen eskubideak bermatze aldera lege- edo politika-neurriak hartzeko. Une honetan, adinagatiko bereizkeria enplegu-sektorean soilik dago araututa; aitzitik, ez dago eremu horretatik kanpo jendea adinagatiko bereizkeriatik babesteko EBko legeriarik. Hala ere, EBn, zenbait politikak adinekoak ukitzen dituzte, herritar gisa, kontsumitzaile gisa, langile gisa, pentsiodun gisa, haurtzain gisa, zerbitzuen erabiltzaile eta gaixo gisa.

2014ko otsailean, Europako Kontseiluak adinekoen giza eskubideez espezifikoki arduratzen den Europako lehen tresna bereganatu zuen. Hori oso garapen garrantzitsua da, adinekoen eskubideak tresna bakar batean kodetzeko lehen saioa baita; arlo ugarian adinagatiko bereizkeriaren aurka esku hartzeko gomendatzen du eta adinekoen talde zaugarrienen erronkak onartzen ditu. Dena den, gomendioa ez da loteslea eta ez du ezarketa gainbegiratu duen kontrol-mekanismo eskaintzen. Estatu kide bakoitzari dagokio erabakitzea zein puntutaraino beteko duen gomendioa.

Hain zuzen ere, oro har, dauden giza eskubideak adinekoei aplikatzeko modua gobernu maila desberdinetako arduradun bakoitzaren autorregulazioaren menpe dago, eta horrek alde itzelak dakartza bai herrialdearen barruan bai herrialdeen artean. Horregatik pentsatzen ari da EB ea gaur egun adinen artean berdintasuna lortzeko gehiago egin behar den, eta eztabaidatzen den aukeretako bat da ea hitzarmen berri batek (legezko tresna loteslea) adinekoen eskubideen babesa hobetuko lukeen. Horren harira, maiatzean EBko adinekoen eskubideetan aditu independente berri bat izendatu zen eta mundu osoko adinekoen eskubideen babes-egoera arakatzeko agindua eman zitzaion.

AGE eztabaida horietan sartuta dago eta, horrekin batera, EBn adinekoen eskubideak sustatzeko neurriak hartzen ditugu, bereziki zaintza eta laguntza behar dituzten adinekoen eskubideen alde egiteko.

Zergatik? Gure kideek uste izan zutelako talde zehatz hori tratu txarren eta zabarkeriaren aurrean espezifikoki zaugarria dela, bakartze sozialeko egoeren, osasun-arazoan, ahultasunaren eta ekonomia-mugen ondorioz.

2008an, AGEko kideek adinekoen tratu txarren aurka borrokatzeko eta European zaintza-zerbitzuen kalitatea hobetzeko jarduteko eskatu zuten. Aldi berean, Europako Parlamentuak "epe luzerako zaintzari buruzko ebazpen" bat eman zuen. Bertan, adinekoen tratu txarrak EBko funtsezko kezkatzat jo zuen, bereziki mugaz gaineko zaintza-zerbitzuen kopurua gero eta handiagoa den lekuetan eta

gero eta adineko gehiagok zaintza beste herrialde batean bilatzen duten lekuetan; horrez gain, Europako Batzordeak adineko emakumeen aurkako indarkerian arretoa jartzen duten proiektuetarako deialdi espezifikoak egin zituen.

Horrela, AGEk Europako epe luzerako zaintza eta laguntza behar duten adinekoen eskubideen eta erantzukizunen gutuna garatzeko finantzaketa jaso zuen. Gutunaren proiektuak (EUSTACEA izenekoak) 8 herrialdeetako 10 kide bildu zituen. Horien artean, Frantziako "mendeko" adineko pertsonen eskubideen gutunaren zirriborroa egiten parte hartu zuen Frantziako erakunde bat eta Alemaniako zaintza behar duten pertsonen eskubideen gutunaren zirriborroa egiten parte hartu zuen Alemaniako erakunde bat daude.

EBko gutunaren lehen zirriborroa Frantziako eta Alemaniako gutunetan oinarritzen da. Hainbat herrialdeetan lantegi batzuk antolatzeari, eztabaida ugari izateari eta gutunaren zirriborro kopuru handia egiteari esker hobetu da.

Gutunean funtsezko kontzeptu batzuk aplikatzen dira. Lehena da adinekoek ez daukatela besteek baino eskubide gehiago edo gutxiagorik edo eskubide desberdinik. Beraz, gutunak hauxe nabarmentzen du: "zahartzen zarenean, besteen beharra izan dezakezu zaintza edo laguntza jasotzeko, baina... eskubidea edukitzen jarraitzen duzu". Bigarrena da gutunak adinekoei "zu" esanez zuzentzen zaiela. Gutuna adinekoek beraiek erabili behar duten tresnatzat jo beharko litzateke, eskubideen titular zuzentzat hartzen baitira. Hirugarrena da gutuna toki guztietan aplikatzen dela, etxeko zaintzan, erakunde batean nahiz zaintza emateko beste edozein modutan. Haren helburua zaintza behar duten adinekoei beren eskubideetarako sarbidea edukitzea erraztea da. Haren helburua dauden gutunak osatzea eta babestea da, baita zaintza behar duten adinekoak eskubideen titularrak direlako kontzientzia areagotzea.

Gutunak 10 artikulua ditu: 9 "eskubideei" buruz eta 1 "erantzukizunei" buruz. Hori garrantzitsua izan zen eskubideak eta erantzukizunak elkarrekin jorratzeko. Artikulu bakoitza erantsitako gida batean zehaztuta dago; gidak kapituluak zer esan nahi duen zehazten du eta jardun onen adibide batzuk ematen ditu.

Adinekoen tratu txarrak EBko herrialde guztietan eta zaintza-ingurune guztietan gertatzen dira. Dena den, arrisku-faktore nagusiak hauek dira: bakartze soziala eta zaintzailearekin mendetasun handiko harremana izatea, baita pertsonak Alzheimer edo beste dementzia-motaren bat edukitzea. Kasu gehienetan, tratu txarrak familian edo hurbileko harreman batean jazotzen dira, konfiantza espero den inguruetan. Lehen artikulua "Duintasunerako, ongizate fisiko eta mentalerako, askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea" du hizpide. Artikulu hori funtsezkoa da eta gutunaren "goiburutzat" jotzen da, tratu txarreko egoera asko zahartzaroan normalak direla uste baita. Haien eskubideez kontzientziatu gabe, adinekoek ezin dute jakin tratu txarrak edo bereizkeria jasaten ari direla, ezta nola behar bezala erantzun dezaketen ere. Artikulu hori, nagusiki, bereizkeria-motez (generoa, sinesmenak, baliabide ekonomikoak, etab.) eta adinekoen tratu txarrez (fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa, farmazeutikoa, zabarkeria) ari da. Era berean, segurtasun-sentsazioa eta gizarte-babeserako sarbidea hartzen ditu barne.

Ondoren, artikulu bakoitzak zaintza behar duten adinekoen eskubideen funtsezko alderdiak zehazten ditu.

Zaintza behar duten adinekoek justifikatu gabeko mugak pairatzen dituzte hauta ditzaketen aukerei eta har ditzaketen erabakiei dagokienez. Aipa dezakegu adineko batek honakoa esan zuela: "Erabakitzeko askatasuna, noiz altxatu, zer bazkaldu, gaur zein arropa eramango dudana erabakitzeko askatasunaren falta nabaritzen dut". Epe luzerako zaintza behar duten adinekoek haien mugikortasuna eta autodeterminazioa murriztuta daudela ikusi ohi dute. Hori bereziki arazotsua izan daiteke ekonomia- eta mugikortasun-premietarako bikotekidearen menpe dauden adineko emakumeentzat. Horren arrazoiak erakundeetako zaintza-hornitzaileek ezarritako mugekin eta zaintzaileen denbora-faltarekin zerikusia duten faktoreak izan daitezke. Adibidez, zerbitzu-hornitzaile batzuek ez dute sustatzen adinekoek dendetara joatea eta nahi dituzten produktuak aukeratzea edo ez dute onartzen adinekoek euren otorduak prestatzen laguntzea, segurtasunari lotutako arazoien ondorioz. Horrez gain, zaintzaile batzuk adinekoei modu informal edo lagunartekoegi batean zuzentzen zaizkie, adinekoek hori nahi dutela aurretik egiaztatu gabe. Garrantzitsua da adinekoei euren borondatea eta iritzia adierazten uztea eta haien nahiak errespetatzea, bereziki zaintza jasotzen duten moduari, bizi-kalitatearen inguruan dituzten itxaropenei eta tratu medikoari dagokienez. Halaber, ulertu behar da adinekoen segurtasuna bermatzeko helburua batzuetan ez datorrela bat autonomia sustatzeko helburuarekin. Hori gertatzen denean, kasua arretaz aztertu behar da bien arteko oreka ziurtatzeko, eta zaintzaileek onartu behar dute adinekoek hein batean arriskatzeko eskubidea daukatela. Bigarren artikulua autodeterminazioari buruzkoa da, hau da, bizitzako erabakiak hartzen jarraitzeko eta aukerarena errespetua izateko eskubidea. Artikulu horrek autodeterminazioaren mugak eta gaitasunaren murrizketak ere lantzen ditu; horrelakoak zenbaitetan gertatzen dira, esate baterako, pertsonak Alzheimer fase altua edo beste narriadura kognitiboren bat daukatenean. Artikulu horren gako edozein muga debekatzea da, arrisku edo izan litekeen kalte batekiko proportzionala izan ezean. Erabaki hori adinekoen onerako hartu behar da, itzulgarria izan behar da eta aldizka berraztertu behar da, modu independentean egiaztatu daitekeen prozesu garden batean, horrelako mugak murriztu ahal izateko.

Zaintza behar duten adinekoek haien pribatutasuna murriztuta dagoela antzeman dezakete, bereziki zaintza pertsonala jasotzen dutenean, hala nola garbitzen dituztenean, bainatzen dituztenean edo tratamendu espezifikoak ematen dizkietenean. Egoitzako zaintzan, komunitateko bizitzaren ondorioz sufri dezakete intimitaterako eta pribatutasunerako tokirik errespetatzen ez bada. Batzuetan, adinekoak aingeruak bezalakoak direla uste izaten da, alegia, uste izaten da ezin dutela sufritu haien intimitateari eraso egiten diotenean edo ez daukatela bizitza sexualik. Zenbaitetan, egoitza batzuetan komunera joateari eta antzeko une pribatuei ere ez zaie pribatutasunik ematen. Konfidentzialtasuna ere adinekoaren eta haren zaintzaileen arteko konfiantza gordetzeko funtsezko betekizun bat da. Beraz, hirugarren artikulua pribatutasunaz eta bereziki pribatutasunaren eta intimitatearen errespeturako eskubideaz ari da. Horrek bakarrik egoteko denbora eta lekua izateko eskubidea, lotsa-sentimenduen errespetua, harremanen (idatzizkoak zein ahozkoak) pribatutasuna eta datuen eta informazioaren konfidentzialtasunaren babesa hartzen ditu barne.

Pentsa liteke zaintza behar duten adineko guztiek zaintza- eta arreta-mota berbera nahi eta espero dutela. Hala ere, denok bezala, zaintza behar duten adinekoak jatorri desberdina eta desberdintasun kultural eta sozialak dauzkaten pertsonen osatutako talde heterogeneo bat dira. Oso lanbide eta bizitza desberdinak zeuzkaten eta ez dute bizitza modu berean ikusten. Zaintza-premiak ez dira estatikoak. Egoerak aldatu, hobetu eta okertu egin daitezke eta garatzen diren erantzunak eskatuko dituzte; horretarako, premiak aldizka berraztertu behar dira, zaintza-plana egokitze aldera. Elikadura

onak funtsezko eginkizun bat betetzen du zaintza onaren barruan. Kalitate oneko zerbitzua pertsonen ongizatea ziurtatzen duen, errespetatzen duen, zentzuzkoa eta irisgarria den eta zaintzari jarraitutasuna ematen dion zerbitzua da. Kalitate oneko zaintza emateak esan nahi du zaintza jasotzen duena zaintza emateko prozesuko kide garrantzitsuena dela pentsatzea, ez jasotzaile pasibotzat jotzea. Adineko emakume baten lekukotzaren bidez adibide bat emango dut. Emakumeak honakoa esan du: "ez du ulertzen zergatik egiten dudan negar komunean eserita asko itxaron behar dudanean niri laguntzera etorri arte. Badakit oso lanpetuta dagoela, baina ulertuko balu zer mingarria den hori niretzat!". Horixe da laugarren artikulua gaia, kalitate oneko eta neurrira egindako zaintza jasotzeko eskubidea hain zuzen ere. Artikulu hori bereziki zaintzan lan egiten dutenentzat zuzenduta dago, eta kalitate oneko zaintza ondo ordaindutako eta ondo prestatutako langileei ere lotuta dagoela aipatzen du. Zaintzaile informalek deskantsatzeko zaintza-irtenbideak ere aipatzen ditu. Kalitate oneko zaintzak autonomian eta independentzian arreta jartzen duen eta horiek sustatzen dituen prebentziozko zaintza ere hartzen du barne. Egokitasuna eta pertsonarengan arreta jartzea ("neurrira egitea") funtsezko alderdiak dira.

Batzuetan, zaintza behar duten adinekoek ez dute informazio egokirik jasotzen edo ez diete ematen erabakiak hartzeko denbora edo informaziorik. Adibidez, adineko batek honakoa esan du: "Lehen jakin banu! Orain beranduegi da. Ez daukat beste aukera bat bilatzeko energiarik, ezta lagundu diezadakeen inor ere". Halaber, zaintzaile informal batek hauxe adierazi du: "Ezin dut gehiago eta aitarentzako irtenbide bat aurkitu behar dut (Alzheimer larria dauka), baina ezin dut informaziorik aurkitu zer dagoen eskuragarri jakiteko. Orduak eta orduak eman ditut telefonoan eta oraindik ez dakit zer egin". Informazioa ematea ez da prozesu bakun bat. Trebetasun jakin batzuk eskatzen ditu profesionalen aldetik, eta batzuetan errepikatu egin behar da. Zaintza behar duten adinekoak ez dira jasotzaile pasiboak eta haien zaintzari buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan sartuta egon behar dira, haien gaitasun kognitiboekiko proportzionaltasuna gordez. Batzuek hitz egiteko, entzuteko edo irakurtzeko zailtasunak izan ditzakete. Erabakiak hartzea pertsonen duintasunaren funtsezko alderdi bat da, eta osasunari eta zaintzari buruzko erabakiak bereziki garrantzitsuak dira, eguneroko bizitzan eragina daukate-eta. Era berean, erabakiek eguneroko bizitzan eragin itzela eduki dezake, esate baterako egoitza batera lekualdatzeko edo etorkizunean etxean robot bat edukitzeko hartzen badira. Horregatik, bosgarren artikulua informazio pertsonalizatua eta aholkuak jasotzeko eta baimen informatua adierazteko eskubidean jartzen du arreta. Artikulu horrek zaintza-aukeren eta zaintzari lotutako erabakien inguruko informaziorako sarbidea lantzen du bereziki. Gardentasuna eta erabakiak hartzeko prozesuetako partaidetza funtsezko gakoak dira. Baimen informatua, zehatz-mehatz, zenbait informazio- eta aholku-iturritz baliatzeko aukera eta lege-aholkuez baliatzeko aukera da, baita elkarrizketak sotiltasunez eta era ulergarrian garatzea ere. Horrez gain, zaintza-zerbitzuaren kontratua barne hartzen du.

Zaintza behar duten pertsonen gizarte- eta kultura-jardueretarako sarbidea ukatu ahal zaie, baita herritar gisa dauzkaten eskubidea ere. Baina dibertitzea bizitzaren funtsa da eta gizartearen barruan egotearen eta bertan parte hartzearen sentimendua pizten du. Bakartze soziala zahartzaroko arazo nabarmen bat da, pertsonen bizitzaren beste alderdi askori eragiten baitie. Gizon batek honakoa azaldu du: "Nire emaztea hil zenean, inolako itxaropenik gabe geratu nintzen eta bakartuta sentitzen nintzen. Ez nekien behar bezalako otordu bat prestatzen, baina ez nuen etxez etxeko janaria eskatu nahi. Zerbitzu komunitarioko andreak adinduentzat ematen dituzten sukaldaritza-eskoletara joateko adorea eman zidan eta hementxe nago. 93 urterekin, une oro gozatzen ari naiz! Lagun berriak egin

ditut eta elkarrekin dibertitzen gara". Seigarren artikulua etengabeko komunikazioari, gizartean parte hartzeari eta jarduera kulturalari buruzkoa da. Artikulu horrek, nagusiki, parte hartzeko aukerak lortzeko posibilitatea edukitzeaz hitz egiten du, pertsonak parte hartzera behartu gabe. Parte hartzea boluntarioa izatea, jardueretan parte hartzea edo ordaindutako lana egitea da. Askatasunez mugitzea, teknologia berriak erabili ahal izatea eta herritar-eskubideak egikaritzea ere esan nahi du.

Bereziki egoitzako zaintzako inguruneetan, baliteke adinekoek beren pentsamendua edo erlijioa askatasunez praktikatzeke aukerarik ez edukitzea edo erlijio edo sinesmen jakin bati jarraitzea behartuta egotea. Esate baterako, adineko gizon batek hauxe adierazi du: "Inoiz ez dut eskatu apaiz bat niri bisita egitera etortzeko. Nork utzi dio sartzan eta zergatik deitzen dit seme? Ez dut Jainkoagan sinesten eta ez diot entzun nahi!". Gizarteak gero eta areago onartzen du aniztasunerako eskubidea eta kultura-jatorri desberdinetako pertsonak zaintzea erronka bat dela. Bakoitzaren kultura-jatorriak sinesmenetan eta balioetan eragina dauka, baita osasunaren, gaixotasunaren eta heriotzaren pertzepzioan ere; halaber, sufrimenduaren eta existentziaren esanahian, pribatutasunari buruzko mugetan, familiak erabakiak hartzeko duen eginkizunaren ikuskeran, pertsonaren autonomian edo besteekin komunikatzeko moduan ere badu eragina. Hori dela-eta, zazpigarren artikulua adierazpen-askatasuna eta pentsamendu- eta kontzientzia-askatasuna izateko eskubidea dauka hizpide. Artikulu horrek tolerantzia ez ezik erlijio-presioaren aurkako babesa ere aipatzen du.

Zortzigarren artikulua artikulu erronkariena da, laguntza eta zainketa aringarriak jasotzeko eskubideari eta hiltzerakoan eta hiltzean duintasuna errespetatzeari buruz hitz egiten baitu. Artikulu horretan, bizitzaren azken faseak pertsonak tratatu txarren aurrean edo askatasunaren murrizketen aurrean zaugarrien diren unetzat jo ditugu. Erakundeetako arau eta ohiturek arriskuan jarri ohi dute duintasunez hiltzeko eskubidea, horien ondorioz adinekoen tratatu txarren mota deitoragarrienak gertatzen baitira, zeharo mendekoak bihurtu diren eta min itzela sufri dezaketen pertsonak ukitzen dituztelako. Beti ez dira beharrik gabeko mina arintzeko eta prebenitzeko eta hiltzen ari diren pertsonen eta haien familiari laguntza emozionala emateko neurriak hartzen. Adinekoek beren bizitzaren amaierari dagokionez aukeratzen dutena ez da beti errespetatzen. Une horietarako eskubide espezifiko bat funtsezkoa da pertsonen nahien aurka egongo lirakekeen erabakiei aurrea hartzeko. Horrez gain, pertsonak oraindik ahalik eta kontsolamendu handienaz eta bizi-kalitate hobereenez baliatu daitezkeela ziurtatzen du, egoera alde batera utzita. Zainketa aringarrietarako eta minaren kontrolerako eskubidea, tamalez, oraindik ez da nazioartean oinarritzko giza eskubide moduan onartzen. Dena den, kontzientzia hazten ari da eta herrialde askotan bizitzaren amaierara heltzen ari diren adinekoen kontsolamendua eta duintasuna emateko ekimen berritzaileak garatzen ari dira. Laguntza handia, hala nola minaren kudeaketa, laguntza sozial eta psikologikoa eta familiaren partaidetza funtsezko kontzeptutzat jotzen dira.

Tratatu txarrak ematen direnean, biktimek ez ezik salatariak ere laguntza jasotzeko aukera eduki behar du. Horixe da gure bederatzigarren artikulua gaia, kalte-ordainerako eskubidea hain zuzen. Adinekoen tratatu txarretako kasu gehienetan, biktimek ez dituzte tratatu txarrak salatu nahi. Hainbat arrazoi daude horretarako: tratatu txarren emailearekiko harremana galtzeko beldur dira, haien aurka edo maite dituztenen aurka egindako tratatu txarrak salatzeak ekar ditzakeen ondorioen beldur dira, ez dakite zer diren tratatu txarrak eta, hortaz, baliteke ez konturatzea ekintza batzuk tratatu txarrak direla. Tratatu txarretako ustezko kasu bat ikusi edo horren inguruko informazioa daukaten pertsona guztiek

ziurtatu beharko lukete biktimak badakiela nola salatu. Horrelako egoerak kudeatzeko eta erabaki onenak hartzen direla ziurtatzeko protokoloak garatu beharko lirateke.

Azkenik, eskubideen titular gisa, garrantzitsua da erantzukizunetik dugun zatia aintzat hartzea. Alaba batek zera adierazi du: "Amak esan balit bere bizitzaren amaierarako zer nahi zuen oraindik egin zezakeenean! Orain dementziak gaitasun mental guztiak kendu dizkio eta oso zaila egiten zait haren izenean erabakitzea, ez dakidalako zer nahiko lukeen berak. Inoiz ez dugu horrelako gauzez hitz egin". Beste seme batek honakoa dio: "Denok pentsatu nahi dugu erabaki mingarri horietaz geroago arduratzeko denbora izango dugula, baina zenbat eta gehiago itxaron orduan eta mingarriagoa eta emozionalagoa egiten da". Horixe da gutunaren hamargarren artikulua. Artikuluak aipatzen du besteen eskubideak errespetatu behar direla eta ez direla urratu edo gaizki erabili behar. Hortaz, etorkizuneko erabakiei buruzko planak egitea oso garrantzitsua dela uste da.

Beraz, dagoeneko gutunaren inguruan dena dakizuenez, zenbait ideia emango dizkizuet erabiltzeko modua dela-eta. Gutuna, legez, ez da agiri lotesle bat; aitzitik, Europar erreferentzia eta EBko herrialde guztietan nahiz mundu osoan inspirazio-iturri bihurtzeko edo gero eta areago bihurtzeko helburua duen agiri bat da. Era berean, frogatu da oso tresna erabilgarria dela adinekoen erakundeek zaintzako eskubideen gaia landu dezaten, baita zaintza-zerbitzuetako bizi-kalitateari eta eskubideen errespetuari buruzko eztabaidak, gogoetak eta debateak hasteko ere. Esate baterako, Belgikako egoitza batean jarduera gisa erabili zen, egoitzan bizi ziren adinekoen iritziak eta ikuspuntuak partekatzeko eta haien egoera hobe aldera aldaketak proposatzeko.

Gutunari erantsita dagoen gidak gutuna erabiltzen laguntzeko balio du, xede-talde desberdinentzako gomendio espezifikokoak eta jardun onen adibideak jasotzen baititu.

Gutuna WeDO izeneko proiektu baten oinarria izan zen (izenak "adinekoen ongizatea eta duintasuna" esan nahi du). Proiektu hori zerbitzu-hornitzaileei zuzentzen zaie eta Europako kalitate oneko egitura bat garatu du epe luzerako zaintza-zerbitzuetarako. Egitura horrek kalitateari lotutako printzipioak eta zaintza-zerbitzuetan aldaketak ezartzeko metodologia bat hartzen ditu barne. Halaber, jardun onen eta kalitate oneko tresnen adibideez osatzen da. WeDO 2012an amaitu zen, baina WeDO2 delakoak jarraitu zion; azken horrek kalitate oneko zaintzaren inguruko prestakuntzak garatzea du helburu. Prestakuntzak adinekoen tratatu txarrei buruzko eta zaintza eta laguntza behar duten adinekoen eskubideen gutunari buruzko modulu espezifikokoak dauka. Gaur egun, WeDO Europako elkarte zabal bat da, kalitate oneko epe luzerako zaintzaren aldeko mugimendu bat. EBko 13 herrialdetan jarduten du, Espainia barne, Kataluniako FATEC elkarteari eta Espainiako Fundación Pílares elkarteari esker.

Horrez gain, gutunak giza eskubideetarako tresna berrietan eragina izan du, hala nola Europako Kontseiluak adinekoen eskubideen inguruan eman duen gomendioan. Gomendio hori adinekoen eskubideetarantzko urrats handi bat da. EBko adinekoen eskubideei buruz etorkizunean egon daitekeen hitzarmen baterako zenbait gogoeta prestatzen ditu.

Azkenik, uste dugu gutunak Europar epe luzerako zaintzarako estandarrak, eskubideetan oinarritutakoak eta emaitzetara zuzendutakoak, sortzea eragiteko erabili beharko litzatekeela, Europako leku guztietan zaintza behar duten adinekoek kalitate oneko zaintzarako sarbidea eduki dezaten.



## Ondorioa

Amaitzeko, nabarmendu nahi dut adinekoek oso mehatxu espezifiko eta errealei aurre egiten dietela honakoei lotutako eskubideei dagokienez: pentsioetarako, osasun-zaintzarako eta hezkuntzarako sarbidea, langabeziako adinagatiko bereizkeriaren aurkako babesak, ondasunetarako eta zerbitzuetarako sarbidea, egoitzetako laguntza eta adinekoen tratua txarren aurkako babesak. Adinekoen eskubideez hitz egitearen xedea ez da eskubide berriak sortzea; aitzitik, ziurtatu nahi da adinekoek beren eskubideez legean eta praktikan erabat goza dezaketela, gizarteko gainerako kideek bezalaxe, eta onartu nahi da babesean diferentziak eta espezifikotasunak badaudela baina horretarako tresnen eta politiken bidez hel dakiekeela. Gai hori Europako Kontseiluarekin eta Europako Batzordearekin antolatuko dugun ekitaldi batean eztabaidatuko dugu. Bruselan izango da, ekainaren 23an, eta zaintzako giza eskubideetan jarriko du arreta.

Adinekoak ere ukitzen dituen krisialdi honetan, funtsezkoa da gogoraraztea eskubideen titularrak direla, beste adin-taldeak bezalaxe. Mendetasuneko (ekonomikoa, soziala, zaintzako) egoerek ez dakarte eskubideen galera, eta ez guke ahaztu behar zahartzen ari den biztanlerian gure aniztasuna aintzat hartzea. Dementia erronka garrantzitsua bihurtuko da zaintzari eta eskubideen babesari dagokienez.

Nire aurkezpena amaitzeko, egitate batzuk emango ditut: 2060rako, hau da, 73 urte ditudanean, EBko herritarren heren batek 65 urte edo gehiago edukiko ditu. Ni emakume bat naiz; hortaz, gehiago bizitzeko aukera gehiago ditut. Horregatik, pozten nau gaur ekitaldi garrantzitsu honi hasiera emateak, ziur bainago hemen nire etorkizunerako eta denontzako gogoeta interesgarri eta garrantzitsuak aterako direla.

Eskerririk asko zuen arretetatik.

Maude Luherne

## Informazio gehiago hemen:

- Harremanetarako datuak: [maude.luherne@age-platform.eu](mailto:maude.luherne@age-platform.eu)
- AGE Platform Europe [www.age-platform.eu](http://www.age-platform.eu)
- Gutuna gaztelaniaz irakurtzeko esteka: [http://www.age-platform.eu/images/stories/Charter\\_Spanish.pdf](http://www.age-platform.eu/images/stories/Charter_Spanish.pdf)
- WeDO eta EUSTACEA (gutuna): [www.wedo-partnership.eu](http://www.wedo-partnership.eu)
- AGE elkartearen jarraibide bereziak adinekoen eskubideei buruz: [http://www.age-platform.eu/images/Briefing\\_older\\_persons\\_rights\\_FINAL\\_EN.pdf](http://www.age-platform.eu/images/Briefing_older_persons_rights_FINAL_EN.pdf)